# La Iniciativa Legislativa Popular de ELA: Una ley en favor de las y los trabajadores de las subcontratas públicas de Navarra

**¿En qué momento está la ILP?**
La ILP que presentó ELA en noviembre de 2013 y que obtuvo el apoyo de más de 14.500 navarros y navarras fue tomada en consideración por el Parlamento de Navarra. Eso significa que va a seguir los trámites previstos para un proyecto de ley y va a ser debatida en los próximos meses. Este otoño, los grupos parlamentarios harán enmiendas al texto presentado por ELA, propuesta que busca regular las condiciones laborales y garantizar el empleo de las personas que trabajan en las subcontratas de la administración pública navarra : local y foral.

**¿Qué queremos regular en las subcontratas públicas?**
Los sectores subcontratados son, por lo general, los grandes olvidados del mercado laboral. En estos ámbitos prolifera la precariedad laboral y se acentúan todo tipo de problemas laborales: los relativos a la seguridad y salud laboral, los de negociación colectiva, los de destrucción de empleo, etc.

***"La ILP busca combatir la precariedad laboral y mejorar las condiciones de trabajo del personal de las subcontratas."***

ELA, con su ILP, sacó del olvido al inmenso colectivo que presta sus servicios para la administración pública navarra a través de una empresa privada y puso sobre la mesa los principales problemas que afectan a miles de trabajadoras y trabajadores. Con el texto presentado se persigue la incorporación de cláusulas sociales en los pliegos de condiciones de la contratación, fundamentalmente con cuatro objetivos:




**1. Mantener el empleo al cambiar de subcontratas.**
**2. Garantizar un convenio de aplicación mínimo.**
**3. Frenar los recortes estableciendo un precio de licitación suficiente**
**4. Sancionar los incumplimientos empresariales.**

**¿Qué hará ELA en los próximos meses?**
Los próximos meses van a ser determinantes para conocer si el Parlamento Navarro va a asumir la responsabilidad de regular, en condiciones dignas, un ámbito que le compete directamente y en el que se dan todo tipo de discriminaciones y abusos. Sería una oportunidad perdida que el debate sobre qué cláusulas sociales han de incorporarse en la contratación pública de Navarra, se resuelva con menciones genéricas que terminan siendo meras recomendaciones que no solucionan el problema. Para evitar lo anterior, ELA se ofreció durante su intervención en el Parlamento para colaborar con los partidos que tengan voluntad de lograr una ley efectiva y que defienda nuestros intereses como trabajadores/as. Por ello estaremos vigilantes al trámite parlamentario.

Vosotros y vosotras que trabajáis en sectores tan diversos como la limpieza, la construcción, la limpieza viaria, la seguridad, la OTA, los polideportivos, las ambulancias, la jardinería, residencias, ayuda a domicilio, intervención social, telefonía, informática, servicios varios... tenéis una cosa en común: vuestras condiciones de trabajo dependen de lo que se recoja en el pliego de condiciones. ELA lo tiene muy claro: mientras los pliegos no recojan unos derechos mínimos, las desigualdades e injusticias no van a desaparecer.

Ya hemos dado un paso de gigante: hoy los partidos políticos conocen qué problemas son los que os afectan a quienes trabajáis en subcontratas públicas y lo que es más importante: gracias a esta ILP impulsada por ELA y suscrita por 14.635 personas, saben que con un esfuerzo muy pequeño buena parte de ellos se pueden solucionar. Es cuestión de voluntad política.

**Participa en las acciones y movilizaciones que ELA convoque en favor de la ILP que defiende tus condiciones de trabajo.**

**ELA es el sindicato que se acuerda de ti; el sindicato que cuenta contigo.**

ILP-LHE

Esplotaziorik EZ!

Iniciativa Legislativa Popular
Legegintzako Herri Ekimena

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# ELAren Legegintzako Herri Ekimena: Nafarroako azpikontrata publikoetako langileen aldeko legea.

**Zein unetan dago LHE?**
ELAk 2013ko azaroan aurkeztu zuen LHE, zeinak 14.500 herritar baino gehiagoren babesa jaso zuen, Nafarroako Legebiltzarrean haintzat hartu zen. Horrek esan nahi du lege-proiektuaren tramiteak jarraituko dituela eta datozen hilabeteotan eztabaidatua izango dela. Udazken honetan aurkeztuko dituzte legebiltzarreko taldeek ELAk aurkeztutako testuari egindako emendakinak. Dakizuenez, LHE honekin Nafarroako administrazio publikoaren azpikontratetan lan egiten dutenen lan baldintzak arautu eta enplegua bermatzea nahi dugu: udal- eta foru- administrazioan, hain zuzen ere.

**Zer nahi dugu arautu azpikontrata publikoetan?**
Azpikontratatutako sektoreak, orokorrean, ahaztuak dira lan merkatuan. Esparru horietan, prekarietatea oso hedatua dago eta lan arloko arazoak areagotu ohi dira: lan-osasunari eta segurtasunari dagozkionak, negoziazio kolektiboari buruzkoak, enplegu-suntsiketarenak, etab.

> ***"LHEk lan arloko prekarietatea ezabatu nahi du eta azpikontratetako langileen lan-baldintzak hobetzea du helburu."***

ELAk bere LHEarekin, azalera ekarri du enpresa pribatuaren baitan Nafarroako administraziorako lan egiten duen kolektibo itzela eta mahai gainean jarri ditu milaka langileri eragiten dieten arazo nagusiak. Aurkeztutako testuarekin lortu nahi da kontratazioaren baldintza-orrietan klausula sozialak sartzea, funtsean lau helbururekin:




1. **Enplegua mantentzea azpikontraten aldeketen aurrean.**
2. **Gutxieneko hitzarmen minimoa bermatzea.**
3. **Murrizketekin amaitzea nahikoa den lizitazio-prezioa ezarriz**
4. **Enpresen ez-betetzeak zigortzea.**

**Zer egingo du ELAk datozen hilabeteetan?**
Datozen hilabeteak erabakigarriak izango dira jakiteko, ea Nafarroako Legebiltzarrak bere gain hartu behar duen berari zuzenean dagokion esparrua baldintza duinetan arautzeko ardura, non orotariko diskriminazio eta abusuak gertatu ohi diren. Nafarroako kontratazio publikoan sartu beharreko klausula sozialei buruzko eztabaidari aipamen orokorrekin amaiera ematen bazaio, arazoa konpontzen ez duten gomendio hutsak baino ez direnak onartuz, horrek aukera paregabea galtzea suposatuko luke. Hori saihesteko, ELAk Legebiltzarrean egin zuen agerraldian bere burua eskaini zuen lege eraginkorra eta gure langile-interesak defendatzen dituena lortzeko prest dauden alderdi politikoekin elkarlanean jarduteko. Horregatik jarraipen osoa egingo diogu legebiltzarreko prozesuari.

Zuek oso anitzak diren sektoreetan lan egiten duzue: garbitasuna, eraikuntza, kale-garbitasuna, segurtasuna, OTA, polikiroldegiak, anbulantziak, lorategiak, zaharren egoitzak, etxeko laguntza, gizartegintza, telefonia, informatika, zerbitzu anitzak... baina baduzue gauza komun bat: zuen lan baldintzak baldintza-orrietan jasotzen denaren menpe daude. ELAk oso argi dauka: baldintza-orriok gutxieneko eskubide batzuk jasotzen ez dituzten bitartean, ezberdintasunak eta injustiziak ez dira desagertuko.

Jadanik pausu erraldoia eman dugu: gaur alderdi politikoek badakite zein arazo pairatzen duzuen azpikontrata publikoetan lan egiten duzuenok eta garrantzitsuagoa dena, ELAk abian jarri eta 14.635 herritarrek sinatutako LHE honi esker, badakite esfortzu oso txikiarekin horietarik asko konpon daitezkeela. Borondate politikoa besterik ez da behar.

**Parte hartu zure lan baldintzak defendatzen dituen LHEren alde ELAk deitutako mobilizazio eta ekintzetan.**

**ELA zutaz gogoratzen den sindikatua da eta zu behar zaituen sindikatua.**

ILP-LHE

Esplotaziorik EZ!

Iniciativa Legislativa Popular
Legegintzako Herri Ekimena

ELA
EUSKAL SINDIKATUA